

BEZEROEKIKO HARREMANA:

Laguntza pertsonala eskainiko diegu ikasleei. Laguntza hau, logikoki **espezializatua eta berezia izango da, bakoitzak behar duenaren arabera**koa, alegia. Laguntza pertsonala deritzogu, pertsonek (irakasleek) eskainiko duten laguntza delako. Eta laguntza hau espezifikoa edo berezia da edozer modutan eta edozer arlo irakats dezaketelako. Banakako matematika klaseak eman ditzakegu, taldeko euskara klaseak... Gainera ohiko hezkuntza sistematik kanpoko orduak ere eskaini ditzakegu.

Halere, asken hitza ikasle eta familiek izango dute eta **irakaslearen tratuak edo metodoak zuzenak ez badituzte kontsideratzen, zuzendaritzan kasua aztertuko** da.

Gainera, irabazien-iturrietan azaltzen den taula erreferentzia gisa hartuz prest egongo gara ikasle desberdinak multzok aldatzeko haien ikaskuntza formatua (taldekoa edo banakakoa) aldatzeko etab. Egoera bereziak gertatu ezker ere, konfinamendu bat edo dena delakoa, prest egongo gara online klaseak emateko, izan ere, horretarako baliabideak eskainiko dizkiegu irakasleei.

